

## Industria-birmoldaketaren eraginak langilerian: Laudioko kasuaren azterketa (1975-1992)

Efectos de la reconversión industrial en los trabajadores: Análisis del caso de Llodio (1975-1992)

Effects of industrial reconversion on workers: Analysis of the case of Llodio (1975-1992)

Unai Vicente Basterra\*

### RESUMEN LABURPENEA ABSTRACT

Mediante este trabajo, se han analizado las consecuencias que tuvo la reconversión industrial en los trabajadores. Para ello, se ha analizado el caso de Llodio entre 1975 y 1992, acompañado de dos testimonios. La atención se ha centrado, por un lado, en las transformaciones que el proceso produjo en el ámbito económico, político y social. Y por el otro, al proceso que va desde el modo de vida organizado por el trabajo fabril, hasta la crisis de varias instituciones.

*Ikerketa honen bitartez, industria-birmoldaketak langilerian izan zituen ondorioak aztertu dira. Horretarako Laudioko kasua ikertu da 1975-1992 bitartean, bi testigantzek lagunduta. Arreta, alde batetik, prozesuak arlo ekonomikoan, politikoan eta sozialean eragin zituen eraldaketetan jarri da. Bestetik, enpresako lanaren arabera antolatutako bizitza egonkorretik, hainbat egituren krisira doan prozesuari.*

Through this work, the consequences of industrial reconversion on workers have been analysed. For this, the case of Llodio between 1975 and 1992 has been analysed, accompanied by two testimonies. Attention has focused, on the one hand, on the transformations that the process produced in the economic, political and social spheres. And on the other, in the transition from the way of life organized by factory work, towards the crisis process of various institutions.

### PALABRAS CLAVE GAKO-HITZAK KEY WORDS

Reconversión industrial, Historia de Vida, Llodio, Aceros de Llodio, siderurgia. *Industria-birmoldaketa, Bizitza-Historia, Laudio, Aceros de Llodio, siderurgia.* Industrial reconversion, Live Story, Llodio, Aceros de Llodio, siderurgy.

\* Universidad del País Vasco/  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
UPV/EHU  
uvicentebasterra@gmail.com

Fecha de recepción/Harrera data: 04-12-2020  
Fecha de aceptación/Onartze data: 10-03-2021

XX. mendeko bigarren erdian Laudio Arabako eta Euskal Autonomi Erkidegoko (EAEko) gune industrial nagusienetarikoa izan zen, besteak beste, industria bizkaitarrarekin zuen harremanaren ondorioz<sup>1</sup>. Bilbo Handiko espazioaren saturazioak eta Arabako politika-fiskalak garapen industrial ahalbidetzen zuten. Gainera, Araba gerraostean EAEko ekonomia-ituna mantendu zuen probintzia bakarra izan zen eta horrek abantaila ugari sortu zituen<sup>2</sup>. Industrializazioak garapena ekarri zuen eta landa-gizarte batetik industria-gizarte baterako trantsizioa XX. mendearen azken bi herenetako prozesu nagusia izan zen. Aldiz, XX. mendeko azken laurdenetik aurrera industria-birmoldaketak eskualdea gogor jo zuen.

Lan honen helburua industria-birmoldaketak Laudio izandako eraginak aztertzea da. Horretarako, industria-birmoldaketa bere testuinguru historikoan kokatuko da, Laudioko iturri ezberdinetara joko da eta garaiko bi protagonistaren testigantzak jasoko dira. Laudioko bi langileren, Javier Luengo eta Iñaki Barandiaran, bizitza-historiak landuko ditugu<sup>3</sup>. Lehenengoa *Aceros de Llodio* langilea, bigarrena Laudioko industria ezberdinetan lan egindakoa. Biak langile mugimenduko kideak.

Bizitza-historia hauek bakarrak dira, baina memoria kolektibo baten isla dira ere eta hau bereizteko ezintasunaren aurrean aurkitzen gara<sup>4</sup>. Industriako lanaren egonkortasunaren eta ezegonkortasunaren bi uneen artean eztabaidatzen ari diren langileak irudikatzen dituzte, baita bi une horien artean sortutako borroka prozesua ere. Bi testigantzak deskribatutako eremura hurbiltzeko erabiliko dira, hura definitzen eta baldintzatzen zuten indarrak aztertzeko<sup>5</sup>. Testigantzak gainerako iturriekin alderatzea izango da gure funtzioa. Beraz, enpresako lanaren arabera antolatuko bizitza egonkor batetik, hainbat egituren krisira —enpresa, familia edo ongizate estatua— doan prozesuaz arituko gara. Ziurgabetasunak, langabeziak eta lan-baldintzen galerak gizarte posfordista ezaugarrituko dute. Fabrikak lan-espazio gisa eta lanaldiak lan-denbora gisa izandako nagusitasunaren galera gertatuko da. Sexuen arteko lanaren banaketa zurruna ere lausotuko da. Gainera, natura baliabideen ustiapenaren mugak agertuko dira, baita irabazi-tasa mantentzeko zailtasunak ere<sup>6</sup>.

## 1. SARRERA\*

1 Aketza Merino: *El alto Nervión en la red de modernizaciones vascas (1860-1975). Claves de un proceso de cambio*, Doktore Tesia. Bilbo, UPV/EHU, 2017.

2 Juan Jose Salazar: *Recuperación de la memoria colectiva, Laudio/Llodio*, Laudio, Amalur Fundazioa, 2005; Pedro Fernández Barbadillo: “El concierto económico vasco ¿Pacto entre iguales o concesión?”, *Revista de Estudios Políticos (Nueva Época)*, 124, 2004, 218.-219.or.

3 Miren Llona (Coord.): *Entreverse. Teoría y metodología de las fuentes orales*, Bilbo, EHU, 2012.

4 Maurice Halbwachs: *La memoria colectiva*. Zaragoza, Prensas Universitarias de Zaragoza, 2004.

5 Daniel Bertaux: “Los relatos de vida en el análisis social”, *Historia y Fuente Oral*, 1, 1989, 87.-96.or.

6 Marco Revelli: *Más allá del siglo XX. La política, las ideologías y las asechanzas del*

\*Eskerrak eman nahi dizkiot prozesu honen parte eta laguntzaile izan den Guillermo Marin Casadori

XX. mendearen lehen erdian Laudioko industrializazioak garapen handia eduki zuen. 1934an lehenengo industria handia eraiki zen, *Vidrierías de Llodio S.A.* eta 1940an aldiz, *Aceros de Llodio*. “Aceros” izan zen Laudion kokatutako enpresa nagusia. Burdina eta altzairu mota guztien galdaketa eta forjaketa industriak ustiatzen jardun zuen. 1940ko hamarkadan ere Laudion *Industrial Plástica y Metalúrgica (Limpeza)* eta *Envases Metalúrgicos de Álava* kokatu ziren. 1950ean aldiz, *Arlasa* eta *Talleres y Fundiciones JEZ*. 1965ean “Acerosek” landinean aurkitzen ziren Laudioko gizonen %35ari lana ematen zien eta Vidrieriasek %10,28ari. 1970ean “Acerosek” 2.108 langile zituen eta zenbait unetan 3.000tik gertu. Gainera, 1963an, “Aceroseri” lotua, *Tubos Especiales Olarra* jaio zen, 1968an *Tubacex-i* bide emanez. 1965an aldiz, Vidrieriaseri lotua, *Vidrierías de Álava* sortu zen eta 1980an *Vidrala* izena hartu zuen<sup>7</sup>.

Laudio hazkunde industrialaz baliatu zen eraldatzeko. Adibidez, biztanleria hazi zen: 1960an 7.239 biztanle zeuden eta 1977an 20.386. Gainera, 1978an gazteria indizea 48,07koa zen eta zahartzaroarena 5,28koa. Bestalde, industriak behar zuen lan-indarraren ondorioz immigrazioa nabarmena izan zen. 1950-1975 bitarteko immigrazioaren ondoriozko hazkundera Araban 77.257 biztanlekoa izan zen, Bizkaian 371.073koa eta Gipuzkoan 160.027koa. 25 urte horietan Bilboko itsasadarraren hazkundera nabarmena izan zen: Barakaldok adibidez, 75.182 biztanle gehiago eduki zituen; Basaurik 39.244; Santurtzik 42.700 eta Bilbok 194.406<sup>8</sup>.

Bizkaiko industriarekiko loturak eta industrien lekualdatzeen ondorioz, 1975eko Laudioko biztanleriaren gehiengoak jatorri bizkaitarra zuen (%28,79), Laudion jaiotakoan ehunekoak gaintuz (%24,05). Gaztela (%12,24) eta Asturias-Leon (%10,29) ziren Bizkaia ostan kanpo-jatorri nagusienak. Bestalde, Arabako gainerako lurretatik etorritako biztanleria %8,71lekoa zen. 1975ean lau biztanleetatik hiruk Laudioetik kanpo zuten sorteria<sup>9</sup>. Era berean, 1975eko Laudioko biztanleria aktiboaren banaketak industriaren garrantzia adierazten zuen: lehenengo sektorean 71 pertsona aritzen ziren, bigarrenean 5.037 eta hirugarrenean 1.263<sup>10</sup>.

*trabajo*. Bartzelona, El Viejo Topo, 2001.

7 Aketza Merino: *El alto Nervión*, 394.-401.or.

8 Jose Antonio Perez: “La configuración de nuevos espacios de sociabilidad en el ámbito del *Gran Bilbao* de los años 60.”, *Studia Historica. Historia Contemporánea*, 18, 2000, 117.-147.or.

9 IKEI: *Informe de IKEI: sobre reconversión industrial y estudio sociológico: 1979*, Donostia, 1979. Laudioko Udal Artxiboan eskuratua. 136.or.

10 IKEI: 135.or.

**1. Taula: Balio erantsi erlatiboa (BEE) sektoreka (1975-2000)**

	Lehenengo Sektorea		Bigarren Sektorea		Hirugarren Sektorea	
	1975	2000	1975	2000	1975	2000
Laudio(1)	%0,40	%0,3	%80,9	%59,8	%18,7	%40,0
EAE(1)/(2)	%5,7/%4,0	%1,4/%1,7	%53,3/%58,4	%38,3/%39,7	%41/%37,6	%59,8/%58,6
Araba(2)	%5,4	%2,5	%63,6	%43,2	%31,0	%54,4
Bizkaia(2)	%3,0	%1,5	%56,4	%37,2	%40,7	%61,3

Iturria:

- (1) Salazar, 2005: 153. 1975eko metodologia ezin zehaztu; 2000koa SEC-95 metodologia.  
 (2) Alcaide Inchausti, 2003: 250.-269.or. SEC-95.

Metodologia ezberdinetan oinarritutako datuak badira ere, 1975ean Laudion industriaren pisu erlatiboa nabarmena zela eta hirugarren sektorea oraindik ez zela garatu adierazi daiteke. 2000n aldiz, hirugarren sektoreak bigarrenari espazioa irabazi zion, nahiz eta oraindik ere industria nagusi izan. 1975ean gainontzeko euskal eremuetan industriaren BEEa nagusi zen, baina sektoreen arteko oreka handiagoa zen. 2000n berriz, hirugarren sektorea nagusi zen, Arabako hirugarren sektoreko garapena geldoagoa izanik.

1960-1975 bitartean, EAEko Barne Produktu Gordina (BPGaren) per capitaren hazkundera 8,1ekoa izan zen. 1969an adibidez, Araba Espainiar Estatuko probintzien artean BPG per capita altuena zuen probintzia zen, Gipuzkoa bigarrena eta Bizkaia laugarrena. Joera positiboa hau ordea, 1975etik aurrera aldatu zen. 1975-1985 bitarteko euskal BPGren hazkundera negatiboa izan zen (%-0,3), Espainiar Estatuko hazkundera %1,8koa izan zen bitartean. Hala, EAEk Europako batez bestekoaren gaineko BPG per capita 110 izatetik (oinarria=100), 1985ean 81era jaitsi zen<sup>11</sup>.

Langabeziak, itxierek, murrizketek, birmoldaketek eta lan-gatazkek XX. mendeko azken laurdena ezaugarritu zuten. Horregatik, ez dira gutxi krisia eta bere eraginak aztertu dituzten obrak, baita industria-birmoldaketa aztertu dutenak ere. Horiek lan honen oinarri izango dira. Guk ordea, alde batetik, Araban aurkitzen zen industria bizkaitarraren birmoldaketa eta eraispena aztertuko dugu, bestetik, langileen ikuspuntu eta analisisiez lagunduko gara.

<sup>11</sup> Manuel Gonzalez Portilla: "Algunas reflexiones sobre la crisis del País Vasco del último cuarto del siglo XX", *Studia Historica, Historia Contemporánea*, 13-14, 1995-1996, 105.-118.or.

## 2. KRISI EKONOMIKOA ETA POLITIKOA (1975-1982)

1973an industriako energia-iturri nagusiaren, petrolioaren, prezioa garestitu zen. Krisi iragankorra eta koiunturala izango zela irudikatzen zen, eta horregatik, neurri estrukturalik ez zen hartu, aitzitik, egonkortze-neurriekin soilik egin zitzaion aurre hasiera batean<sup>12</sup>. Herrialde gehienek kontsumoaren gainean neurriak hartu zituzten bitartean, Espainiar Estatuak, krisiaren ustezko izaera koiunturalean eta kanpo-kontuen sendotasunean babestuta, petrolioaren gehiegizko kontsumoa baimendu zuen. Erabakiarekin krisiak errentetan eta enpleguan izan zezakeen eragina saihestea bilatzen zen<sup>13</sup>.

1973-1977 bitartean ez zen doikuntza-planik gauzatu, gainera, instituzioek ez zuten hura gauzatzeko zilegitasun sozialik ere<sup>14</sup>. Urte horiek tentsio politiko handiz bizi izan ziren. Langileria beharrian konkretuen alde borrokatzera pasa zen eta soldataren esparruan arrakasta handiak lortu zituen. Adierazgarria zen langile mugimenduak kapitalaren irabazi-tasa murrizteko izan zuen gaitasuna. 1964an soldatapeko langile guztien ordainsariak, gizarte-segurantzako kotizazioak barne, ez zuten urte batean sortutako aberastasunaren erdia osatzen, hau da, errenta nazionalaren %47,5a. Aldiz, Esportazio-Soberakin Gordinak (ESG) —lehengaien erosketara eta berrinbertsioetara bideratutako zatia zein onura eta zergetara bideratutakoa— %52,5ekoa zen. 1976an aldiz, soldatak %57an kokatuko ziren. Hortaz gain, 1970-1976 bitartean soldaten igoera %40koa izan zen. Diktadurak bere legitimitatearen oinarria zen gorakada ekonomikoa zalantzan ikusten zuen eta hargatik, frankismo bukaeran eta transizioan zehar errepresioa, negoziazioa, asimilazioa eta gerra monetarioa erabili ziren langile protestak baretzeko<sup>15</sup>.

Franco hiltzean, agente politiko guztiak panorama politiko berrian kokatu nahi ziren. Langilariak, sindikatuekiko, baita alderdi politikoekiko autonomia garatu zuen eta Estatuaren forma politiko berria definitzen ari zenean langile mugimenduaren urterik emankorrenak heldu ziren. Horregatik, Estatu-aparatuak eta instituzio ezberdinak kapitalak irabazi-tasa handitzeko forma berrira egokitzea beharrezkoa zen. Hau da, eguneroko bizitzaren aspektu guztietan kapitalaren nagusitasuna bermatuko zuen azpiegitura nazional eta internazional baketsu eta

12 Miren Etxezarreta: *La reestructuración del capitalismo en España: 1970-1990*, Bartzelona, Icaria, 1991.

13 Jose Maria Lorca: “El impacto de la crisis del petróleo de 1973 en el contexto económico español”, *Espacio, tiempo, y forma, Historia Contemporánea*, 27, 2015, 165.-180.or; Jose Maria Serrano: “Crisis económica y transición política”, *Ayer*, Madrid, 15, 1994, 135-164. or.

14 Josep Gonzalez i Calvet: “Crisis, transición y estancamiento: la política española, 1973-1982”, in Miren Etxezarreta (Coord.): *La reestructuración*, Bartzelona, Icaria, 1991, 15.-60. or.

15 Emmanuel Rodriguez: *Por qué fracasó la democracia en España. La transición y el régimen del '78*, Madrid, Traficantes de Sueños, 2015, 34.-36.or.

onartuaren eraikuntza, aktore politiko, sozial eta sindikalen —langileria barne— elkar-harremanean oinarritua<sup>16</sup>. Jada, errepresioaren bitartez langileria-aren protestak gaintzeko asmoa ez zen aproposena berarekin zekarren tentsio guztiaren ondorioz. Hala ere, trantsizioan bortizkeria ez zen alboratu<sup>17</sup>.

Hainbat izan ziren 1970eko hamarkada hasieran horretan langileriak aurrera eramandako mobilizazioak: Granadan, Bartzelonan, Iruñan, Baix Llobregaten edo Alcoy-n. Baina 1976ko martxoaren 3ko Gasteizko gertakariak, non egun osoko istiluetan 5 langile erailak izan ziren, euskal langile mugimenduaren historia garaikidean iltzatuak geratu ziren<sup>18</sup>. Gasteizko langile mugimenduak 50eko hamarkadatik aurrera gaitasun politiko handiak eskuratu zituen eta 1976ko gertakariak urte hasieratik Espainiar Estatuan soldata-langen aurkako mobilizazio zikloaren parte ziren. 1976ko martxoaren 3a Espainiar Estatuarentzat urrats garrantzitsua izan zen langile mugimenduaren aurrean bortzaz agintea berrezartzeko, ordena ekonomikoa babesteko eta demokraziarako trantsizioa bermatzeko<sup>19</sup>.

Gasteizko gertakariak, Laudioko langile mugimenduaren inflexio-puntu bihurtu ziren ere. Langile mugimenduko zenbait kide Gasteizen egon ziren, beste batzuk ordea Laudion bizitakoa gogoratzen dute:

La cuestión socio-política y laboral era muy triste. Se estaba entonces empezando a tocar convenios (...). También se vivió el 3 de marzo del 76. Lo que se vivió ahí fue un punto de inflexión. Yo conocí la huelga de Bandas del 69... Pero sobre todo el 76 me marcó muchísimo. Me emocionó y todo pensando, porque en Laudio “Aceros” fue un ejemplo. Cuando hubo esta catástrofe en Vitoria del 76 se recogieron en “Aceros” 2.000.000 de pesetas de aquella época y se llevó ese dinero a las familias. Ese fue un ejemplo, para ponerte los pelos de punta. Hubo un antes y un después<sup>20</sup>.

Langile mugimenduak garaipenak lortzen zituen, batez ere soldataren esparruan, eta horrek gobernarien kezka sortzen zuen. Lan-legedia dekretuz onartzearen bideragarritasun eza agerian geratu ostean,

16 Cajo Brendel eta Henri Simon: *Ilusiones políticas y lucha de clases: del antifranquismo al postfranquismo*, Bartzelona, Virus, 2004.

17 Gonzalo Wilhelmi: *Romper el consenso: la izquierda radical en la transición española (1975-1982)*, Madril, Siglo XXI España, 2016.

18 Carlos Carnicero: *La ciudad donde nunca pasa nada: Vitoria, 3 de marzo de 1976*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2007.

19 Aritz Saenz del Castillo: “Gasteizko langile mugimendua frankismo garaian. Berrikuspenean historiografikoa”, *Sancho el Sabio*, 30, 2009, 189.-217.or.; Nexo Autonomia: “Autonomía obrera y transición democrática: una aproximación crítica”, in Francisco Quintana (Coord.): *Asalto a la fábrica: luchas autónomas y reestructuración capitalista 1960-90*, Bartzelona, Alikornio, 2002, 13.-80.or.; Amparo Lasheras: *Gasteiz, 3 de marzo. Un recuerdo de 25 años después*. Gasteiz, Arabera, 2001.

20 Iñaki Barandiaran elkarriketa. 2020ko uztailaren 20a, Laudio.

negoiazio eredu berriak asmatu ziren, langile-komiteak eta asanbladak interlokutore bezala onartuz<sup>21</sup>. Hortaz gain, esparru politikoan agente politiko ezberdinen negoziaketarako espirituari heldu zitzaion itun soziala erdiesteko.

1977an lehenengo Estatu akordio nagusia heldu zen: Moncloako Itunak. Bertan, adibidez, askatasun sindikala, elkartzeko eskubidea eta prentsa eskubidea onartu ziren. Itunek trantsizioaren izaera soziala eta ekonomikoa definitu zuten, baita fabriketako borroken erregulazioa lortu ere. Soldatak kontrolatu ziren eta enpresei bakea zein onura industrial eskasak berreskuratzeko marko bat proposatu zitzaien. Gainera, ongizate estatuaren oinarriak handitu ziren, erreforma fiskala gauzatu eta gastu soziala areagotuz<sup>22</sup>. Estatuaren aginte-gaitasuna hedatu zen, baita parlamentuaren legitimitatea handitu. Bestalde, sindikatuak langilegoaren ordezkaritza bere gain hartu eta erabakien buru bihurtu ziren<sup>23</sup>.

Itunen aurretik, 1977ko ekainean, diktadura osteko lehenengo hauteskunde orokorrak burutu ziren. Adolfo Suarezren UCDk irabazi zituen PSOE eta PCEn aurretik. Behin parlamentua osatua Konstituzioa osatzen hasi zen. Arlo sozialean Konstituzioa apala zen, gerraosteko Europako konstituzio progresisten eta hegemonia (neo) liberalen arteko erdibidean. Erredakzioan parte-hartze mugatua izan zen eta alderdi politikoak elkartzeko balio izan zuen<sup>24</sup>.

Hauteskundeen ostean, PCE Europako gainontzeko alderdi komunistekin batera, “eurokomunismoan” murgildu zen. Juan Andradek eurokomunismoa kapitalismo aurreratuan sozialismora heltzeko estrategia nazionala, demokratikoa eta instituzionala garatzeko ahalegin modura definitu zuen<sup>25</sup>. Baina eurokomunismoak sozialismora hurbildu baino, demokrazia liberala sendotu zuen. Arnaud Dolidier marko politikoan integratzearen arrazoiak apustu iraultzaile eta antikapitalisten alboratzean eta langileriaren aldarrikapenen marjinazioan aurkitu zituen, hedatzen ari zen kontsentsu demokratikoa zalantzan ez jartzeko asmoarekin<sup>26</sup>. Sindikatuak ere bide bera jarraitu zuten, legalizazioa baliatuz lan-gatazken instituzionalizazioa gauzatzeko. Azpiegitura zein izaera nazionalan babestuta, negoziazioaren buru bihurtu ziren

21 Jose Luis Herrero: “Las relaciones de trabajo”, in Miren Etxezarreta (Coord.): *La reestructuración*, Bartzelona, Icaria, 1991, 371.-398.or.

22 Emmanuel Rodríguez: *Por qué fracasó la democracia*, 172.-178.or

23 Holm-Detlev Kohler: *El movimiento sindical en España: transición democrática, regionalismo, modernización económica*, Madril, Fundamentos, 2001.

24 Emmanuel Rodríguez: *Por qué fracasó la democracia*, 159.-161.or.

25 Jesus Andrade: *El PCE y el PSOE en (la) transición: la evolución de la izquierda durante el proceso de cambio político*, Madril, Siglo XXI España, 2014.

26 Arnaud Dolidier: “Las movilizaciones obreras durante la transición democrática española, discursos y representaciones acerca del asambleísmo (1976-1978). *Debats. Revista de cultura, poder y sociedad*, 132(1), 2015, 85.-102.or.

patronalaren babesarekin, frankismoko lan-harremanen ereduarekin paralelismoak garatuz, baina sindikatu libreekin<sup>27</sup>.

Lehenengo udal-hauteskundeak 1979an burutu ziren eta ezkerreko alderdiek auzo-elkarte eta inizatiba lokalekin elkarlanean emaitza onak lortu zituzten. Besteak beste Laudion Gure Aukera plataformak, Pablo Gorostiaga buru izanik, alkatetza eskuratu zuen<sup>28</sup>. Esperientzia parte-hartzaileek hasiera batean esperantza sortu zuten arren, alderdien instituzionalizazioak inizatiba lokala gutxitu eta saiakera ezberdinei atak itxi zizkion. Partaidetza kolektiborako aukerak murriztak ziren, erabaki-esparru formalak indartzen ziren heinean. Esperantza asko jarri zen prozesu horretan, beraz, desenkantua nabarmena izan zen<sup>29</sup>.

1979an gainera aurreko zikloko zenbait politiken ondorioak nabaritu ziren: inflazioa gelditzen joan zen eta lan-akordioen bitartez soldatak kontrolatzea lortu zen. Hala ere, langabezia handitu eta aurreikusitako garapena ez zen lortu. Krisialdiaren bigarren agerpenak, 1979 eta 1980 bitartean, hazkundera gelditu zuen. Lanpostu ugari suntsitu ziren eta horri aurre egiteko asmoz, 1980ko Langileen Estatutuan babestuta, lan-indarraren kostuak murriztea erabaki zen. Estatutua langile mugimenduarentzat kolpe handia izan zen, lehendabiziko aldiz Estatuan aldi-baterako kontratazioa onartu eta langile-asanbladak arautu zirelako<sup>30</sup>.

Josep Gonzalez i Calvetek 1979-1982 bitarteko programa ekonomikoa hiru atal nagusietan banatu zuen: doikuntza makroekonomikoak, doikuntza estrukturalak eta erreforma estrukturalak. Politika fiskala aldatu zen soldaten gaineko presio fiskala handituz, enpresen gainekoa gutxituz eta gastu soziala murriztuz. Arlo energetikoan Plan Energetiko Nazionala (PEN-79) ezarri zen energiak arrazionalizatzeko eta birmoldaketak abiarazi ziren. Azkenik, lan-merkatuaren desarautzea eta finantza-sistemaren liberalizazioa gauzatu zen<sup>31</sup>. Nolanahi ere, 1977-1985 bitarteko Espainiar Estatuko BPGren batz-besteko hazkundera %1,1 izan zen eta soldatapeko enplegua 1.200.000 pertsonatan murriztu zen. Kapitalarentzat lehiakortasuna berreskuratzea beharrezkoa zen eta horren ondorioz, 12 urteko tartean (1977-1989), soldatak langile bakoitzaren batz besteko ekoizpenaren %68,3 izatetik %58,7 izatera pasa ziren<sup>32</sup>.

27 Gonzalo Wilhelmi: *Romper*, 287.-298.or; Holm-Detlev Kohler: *El movimiento*, 145.-153.or; Reyes Casado: *La transición en rojo y negro*, CNT (1973-1980). Madrid, Fundación Salvador Seguí. 2018.

28 Pablo Gorostiagaren Udal-Gobernua aipatzen dute Emmanuel Rodriguezek: *Por qué fracasó*, 36.or. eta Gonzalo Wilhelmi: *Romper*, 308.or.

29 Gonzalo Wilhelmi: *Romper*, 304.-309.or; Santos Julia: “Desencanto”, in Santos Julia: *Transición: historia de una política española*, Bartzelona, Galaxia Gutemberg, 2017, 497.-538.or.

30 Emmanuel Rodriguez: *Por qué fracasó la democracia*, 188.or.

31 Josep Gonzalez i Calvet: “Crisis”, 155.-172.or.

32 Jesus Albarracín: “La extracción del excedente y el proceso de acumulación”, in Miren



Torres Enjutok industria-birmoldaketa politika, finantza, zerga, lan eta teknologia neurrien multzo modura definitu zuen, krisiak kaltetutako sektore tradizionalak modernizatzen bideratua, testuinguru ekonomiko berrian enpresak lehiakorak izan zitezkeen<sup>33</sup>. Definizioak ordea, kalte horiek pairatuko zituen langileriaren inguruan ez zuen aipamenik egiten. 1980an Ignacio Bayon Industria ministro izendatzerakoan industria-birmoldaketarako proposamenak gauzatu ziren. 1980ko urrian *Industria Siderurgiko Integrala Onbideratzeko eta Birmoldatzeko Programa* aurkeztu zen. Zorra negoziatu behar zen, interesak murriztu eta 5.800 langileko plantilla-soberakina finkatu zen —3.600 Ensidesan, 1.500 Bizkaiko Labe Garaietan (BLG) eta 700 Saguntoko Labe Garaietan (SLG)—. Hala, bi urteko tartean hainbat industria-birmoldaketa dekretu onartu ziren, horien artean 1981eko maiatzeko siderurgiarena edo 1982ko ontzigintzarena. Hortaz gain, ekainaren 5eko 9/1981 Lege-Dekretua industria-birmoldaketaren oinarria izan zen. Guztira 11 sektore birmoldaketan deklaratu ziren<sup>34</sup>. 1980-1982 bitartean, Araban 4.200 pertsona gutxiago aritu ziren industrian, Bizkaian, berriz, 13.200<sup>35</sup>.

Industria-birmoldaketak Espainiar Estatuko motore-ekonomikoa izan zen industrian eragiten zuen. Horregatik, ekonomia berregituratzeko siderurgia jo-puntuari jarri zen. Bien bitartean, EAEn eta Laudion egoera bera ere larriagotu zen. Limpesak, Villosak eta Envasesek krisia nabaritu zuten, baina bereziki “Acerosek” pairatu zuen hau. 1980an altzairu berezien birmoldaketarako *Aceriales* elkarteak sortu zen eta “Aceros” bertan integratu zen *Pedro Orbegozo, Olarra eta Fundiciones Echevarriarekin* batera. Garai horretan aurre-erretiroez baliatu ziren lanpostuak murrizteko, hauek 52 urteetan kokatu<sup>36</sup>. Langileak kontziente ziren aro berri baten aurrean aurkitzen zirela:

Ya se venía hablando en las asambleas del sindicato que el sistema neoliberal que existía en Estados Unidos se iba a intentar implantar en Europa. Que empezaríamos a prepararnos porque eso de tener un puesto fijo para toda la vida se iría a terminar. Era algo del pasado. (...) La posible deslocalización de las empresas... Ahí viene la primera reconversión de “Aceros”. Si eran 2.000 obreros, pues se fueron 500<sup>37</sup>.

Etxezarreta: *La reestructuración*, Bartzelona, Icaria, 1991: 325.-336.or.

33 Maria Concepcion Torres Enjuto: “Diez años de reconversión industrial en Euskadi”, *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, 13, 1991, 165.-186.or.

34 Jose Maria Marin: *Los sindicatos y la reconversión industrial durante la transición, 1976-1982*, Madril, Consejo Económico y Social, 1997.

35 Maria Concepcion Torres Enjuto: “Diez”, 171.or.

36 Aiaraldea Gaur: *Aceros 25 urte: Aiaraldeko klase borrokaren adibide bat (dokumentala)*, online bideo fitxategia, 2018 (<https://www.youtube.com/watch?v=cdVVjfqY448>, 2020ko ekainaren 8a), minutua: 17:30.

37 Iñaki Barandiarani elkarrizketa.

Lehen birmoldaketekin lehen negoziaketak heldu ziren. Abril Martorell, Adolfo Suarezren Ekonomia ministroa, “Aceroseko” ordezkari batzuekin bildu zen. Martorell-ek 500 milioi pezetako diru-laguntza eskaini zien enpresaren balizko itxierak 2.000 kaleratze ez eragiteko. Bigarren bilera goi-kargu ministerial batekin izan zen. Honek diru-laguntzen aldeko prestutasuna adierazi zuen, beti ere diru-laguntza justifikatzeko langileak kalera atera eta iskanbila sortzen bazuten<sup>38</sup>. Beraz, asmo negoziatzailea existitzen zen, beti ere, gaitasun ekonomikoek hura ahalbidetzen zuten heinean.

Krisiaren ondorioak nabarmenak ziren jada. Ondorio gogorrenak bizi-baldintzen pobretzea pairatu zuen langilerian nabarmendu ziren. Indar-korrelazioa Estatuaren eta kapitalaren aldekoa izatean, langileriak asmo handiko proiektua alboratu eta bere bizi-baldintzak defendatzera behartua ikusi zuen bere burua. Espero zen iraultza ez zen gauzatu eta hori euforia garaitzeko eta desenkontuari bide emateko arrazoia izan zen<sup>39</sup>. Hamaika izan ziren proletariotza menderatzeko ahaleginak kapitalaren eta lanaren arteko harreman baketsua erdiesteko.

Hortaz gain, erdi-mailako klase berriaren diskurtsoak langileria eztabaida politikotik baztertzen lagundu zuen, erdi-mailako klaseen irudikapenean —sen onean, neutritasun politikoan eta modernizazioan— oinarritutako subjektu politiko berria hedatzen ari baitzen<sup>40</sup>. Gizarte berrian diskurtso mesokratikoa nagusitu zen eta gizarte-eskalan gora egitea lortu ez zuen langileriaren zati handi alboratu zen. Bereziki, 70eko hamarkadan garatzen ari zen erdi-mailako klasearen irudikapenarekin bat egiten ez zuen langileriaren kasuan<sup>41</sup>. Trantsizioan langile mugimendua ahuldu zen, baina baita Suarezren Gobernu eta UCD ere. Krisiak panorama politikoa ireki eta erdi-mailako klase berriko belaunaldi bat desenkontuaren eta onbideratze demokratikoaren esferen artean politika egiteko prestatu zuen.

1982ko urriko hauteskunde orokorretan PSOEk gehiengo absolutua lortu eta Felipe Gonzalez presidente bihurtu zen. Gonzalez aldaketa gauzatzeko asmoarekin iritsi zen boterera. Baina, aldaketa martxan

### 3. GOBERNU SOZIALISTAREN MODERNIZAZIO PROZESUA

38 Juan Jose Salazar: *Recuperación*, 320.-321.or.

39 David Beorlegui: *Transición y melancolía. La experiencia del desencanto en el País Vasco (1976-86)*, Madril, Postmetropolis Editorial, 2017.

40 Arnaud Dolidier: “Las movilizaciones”, 94.-100.or.

41 Pablo Sanchez Leon: “Desclasamiento y desencanto. La representación de las clases medias como eje de una relectura generacional de la transición española”, *Kamchatka*, 4, 2014, 63.-99.or.

zegoen jada eta goranzko joeran zegoen erdi-mailako klaseak Gonzalez aldaketaren ordezkari bihurtu zuen. Modernizazioan eta moderazioan oinarritzen zen PSOEn estrategia “Por el Cambio” lelo pean. Besteak beste, Estatuan “Movida Madrileñaren” urteak ziren hauek Tierno Galvanen —diktadura garaitik erdi-mailako klasearen gogoeta soziologikoa egin zuen espainiar politikagintzako erreferente nagusienetakoa<sup>42</sup>— “hirian”. “Movida” klasearteko soziologia horren elkargunean bihurtu zen, estetikari garrantzia emanez, baina alor politikoan aurrera pausu nabarmenik eman gabe<sup>43</sup>. Aitzitik, mugimendu sozialek zenbait aurrerapen lortu zituzten: homosexualitatearen despenalizazioa, antisorgailuen salmenta, feminismoaren suspertzea eta laiktasunaren gorakada<sup>44</sup>.

Gobernu berriak erronka anitzak zituen: krisia, industria-birmoldaketa, instituzio berriak sendotzea zein Europaren begiona irabaztea. Horregatik, PSOEn Gobernuan ongizate estatuaren aldeko politikak, zein lan-esparuan helburu horretatik aldentzen ziren politiken arteko talka existitzen zen. Izan ere, industria-birmoldaketa, inflazioaren aurkako borroka eta zor publikoaren murrizketa gauzatu behar ziren. Horretarako trantsizioan negoziazioak izandako garrantzia dekretu bidez ordezkatu zen, gehiengo absolutuak eskaintzen zituen aukerak baliatuz.

Osasuna, hezkuntza eta pentsioak izan ziren ongizate estatuaren aurrerapen handienak. *Osasun Sistema Nazionala* osatu zen, hezkuntzako antolamendu orokorrerako eta unibertsitateko erreformarako lege ezberdinak onartu ziren eta pentsioak handitu ziren. Gainera, 1983an *Emakumearen Institutua* sortu zen, emakumeen askatasunen zein eskubideen aldeko borrokek trantsiziotik garrantzia handikoak izan baitziren: abortuaren aldeko borroka, antisorgailuen legalizazioa, emakumearen lan munduratzeko eta lan-politikorako aukera<sup>45</sup>. Horregatik, 1982-1996 bitartean gastu publiko soziala BPGren %38a izatetik %46a izatera heldu zen<sup>46</sup>.

Baina aurrerapen sozialari lan-arloko gastuen murrizketa kontrajarri behar zitzaion. Hau Europako alderdi sozialista gehienek zentrorako

42 Pablo Sanchez Leon: “Desclasamiento”, 14.-25.or.

43 Pablo Cesar Carmona: “Autonomía y contracultura. Trabajo, revuelta y vida cotidiana en la transición”, in Espai en Blanc (coord.): *Luchas autónomas en los setenta*, Madril, Traficantes, 2008, 203.-230.or.

44 Jose Antonio Perez: “Este es el tiempo del cambio. España 1982-1996. Una sociedad en transformación”, in Carlos Navajas eta Diego Iturriaga (eds.): *España en democracia: actas del IV Congreso de Historia de Nuestro Tiempo*, Logroño, Errioxako Unibertsitatea, 2014, 63.-82.or.

45 Monica Moreno Seco (ed.): *Manifestos feministas: antología de textos del movimiento feminista español (1965-1985)*, Alacant, Alacanteko Unibertsitatea, 2005.

46 Jose Antonio Perez: “Este es el tiempo”, 69.-71.or.

eta merkatu-ekonomiaren aldeko joeraren baitan kokatu zen, ongizate estatuaren garapenak ekarri zuen zorpetzeari aurre egiteko beharrea justifikatua<sup>47</sup>. Izan ere, garai horretan Espainiar Estatu Europako Ekonomia Erkidegoan (EEE) sartzeko prestatzen ari zen eta 1986an lortu zuen. Bestetik, 1986ko martxoan espainiar hautesleek NATOn jarraitzea erabaki zuten kontrakotasun altuarekin<sup>48</sup>.

1983an aldiz, Carlos Solchagaren eskutik, Industria ministroa, *Birmoldaketaren Liburu Zurian* industria-birmoldaketaren lan-lerro estrategikoak zehaztu ziren. EEEan sartzeko bizirauteko interbentzio politika bat aldarrikatzen zen: krisian aurkitzen ziren sektoreak berrantolatatu, enpresak finantzarioki onbideratu, inbertsioa berreskuratu eta plantillak murriztu. Gainera, Premiaz Berrindustrializatzeko Eremuak (PBEak) ezarri ziren berrindustrializazio-politikari jarraipena emateko. Baina politika-industrialia ez zen sindikatuarekin eztabaidatu eta hauek kontrakotasuna adierazi zuten. Enplegua sortzeko ezintasunak sindikatuak kezkatzen zituen eta PBEak ez ziren hasiera batean finkatutako helburuak betetzeko gai izan<sup>49</sup>.

Egoera ekonomikoa larria zen eta ondorio nagusienak proletariotzaka pairatu zituen. Langabezia zen arazo nagusia: 1982an langabezia-tasa %16,4koa zen eta 1985ean aldiz, %21,3koa. Industria-birmoldaketari heltzeko inizatiba ez zen gai izan zenbait ondorioei aurre egiteko. Guztira, 1,5 bilioi pezeta inbertitu ziren, 800 enpresa kaltetu eta gutxienez 83.000 lanpostu murriztu ziren<sup>50</sup>. Hortaz gain, industriak BPGan egiten zuen ekarpena murriztu zen: 1960an ekarpena %30,93koa zen eta 2000n %21,67koa<sup>51</sup>. EAEn sektoreen arteko banaketari erreparatuz, 1985-1995 bitartean industriak BPGean beharakada izan zuen eta zerbitzuek gorakada. Interesgarriena da aztertzea nola industriak BPGaren azpitik enplegatzen zuten. 1985-1995 bitartean industriaren beharakada BPGan %5ekoa zen, aldiz, enpleguaren beharakada %12koa. Baina zerbitzuen sektorean joera kontrakoa zen, enplegua BPGari egiten zion ekarpenaren gainetik kokatzen zen, eta nahiz eta ekarpen hori jaitsi, 1995-2001 bitartean enpleguak igotzen jarraitu zuen<sup>52</sup>.

Bestalde, altzairuaren ekoizpena Europatik, Ipar Amerikatik eta Japoniatik aldendu eta garapenaren bidean aurkitzen ziren herrialdeetara

47 Josep Fontana: *Por el bien del imperio: una historia del mundo desde 1945*, 3. Edizioa. Bartzelona, Pasado y Presente, 2018.

48 "El 'sí' vence en 13 autonomías y 34 provincias", *El País*, 1986-III-13 ([https://elpais.com/diario/1986/03/13/espasa/511052408\\_850215.html](https://elpais.com/diario/1986/03/13/espasa/511052408_850215.html), 2020ko ekainaren 1a).

49 Jose Maria Marin: "La fase dura de la reconversión industrial", *Historial del presente*, 8, 2006, 61.-101.or

50 Jose Antonio Perez: "Este es el tiempo", 72.or.

51 Albert Carreras: "Industria", in Albert Carreas eta Xavier Tafunell (Coord.): *Estadísticas históricas de España: siglos XIX-XX*, Bilbo, BBVA Fundazioa, 2005, 360.or.

52 IKEI: *Economía vasca, evolución sectorial (1976-2001)*, 2002, 23.or.

lekualdatu zen. Euskal siderurgiaren kasuan 1980-1999 bitartean bere Balio Erantsi Gordina (BEG) bikoiztu zen, baina hazkundea industriako gainontzeko sektoreetan ere gauzatu zen. Denbora tarte horretan siderurgiaren enpleguaren bi heren galdu ziren<sup>53</sup>. Siderurgiaren barruan, altzairu berezien azpi-sektoreari zegokionez, “Acerosen” azpi-sektorea, egoera kezkarria zen. 1990ko hamarkadan atzeraldia egon zen eta handik aurrera ez zen beste hedapen-etapa batzuen ekoizpen-mailara heldu. Bestalde, altzairu berezien sektorearen ekoizpenak kontsumoa gainditzen zuen: 1996-2001 bitartean, ekoiztutako %75,8a kontsumitu zen<sup>54</sup>.

Langabeziari aurre egiteko, lan-baldintza malguak eta ezegonkorrak printzipio modura ezarri ziren. Are gehiago, Espainiar Estatuaren denbora-tarte horretan mundu-mailako lan-malgutasunaren eredu aurreratuan bihurtu zen. Lan-malgutasuna lan merkatura sartzeko prozeduran — kanpo-malgutasuna—, irteera-mekanismoko prozeduretan —irteera-malgutasuna— eta lanpostuan irauteko mekanismoetan —barne-malgutasuna— ezarri zen. Gainera, 1984ko Langileen-Estatutuaren erreformak egonkortasunaren printzipioa zalantzan jarri eta mugarik gabeko aldi-baterako kontratazioa bultzatzen zuen<sup>55</sup>.

Ohitura berriak lan-munduan, baita langileen arteko sailkapen eta ezberdintasun berriak ere. Gobernu sozialistaren garaian langileria bitan banatuta aurkitzen zen. Alde batetik, lanpostu iraunkorra zuen, sindikatua zegoen eta soldata eramangarri bat zuen langileria, gutxiengoa zena; eta, bestetik, aldi-baterako kontratuekin aritzen zen langile-masa geroz eta handiagoa, soldata minimoagatik edo horren azpitik lan egiten zuena. Gainera, industria-birmoldaketak ere banaketa sustatu zuen. Enpresa handietako langileek sindikatuen negoziaketei esker abantaila ekonomikoak eskuratu zituzten; aldiz, enpresa txiki eta ertainetako langileen kasuan, beste lanpostuetan integratzea ez zen lortu, ezta eskubide sozialak bermatzea ere. Hori gutxi ez balitz, proletariotzaren familietan guraso eta seme-alaben arteko arrakala handitzen zen; gazteek osatzen baitzuten, hein handi batean aldi-baterako kontratuekin lan egiten zuten langile-masa geroz eta handiagoa. Bere gurasoak baino baldintza okerragoan biziko zen belaunaldia garatzen ari zen, bizi-proiektu bat eraikitzeko ahalegina zapuztua ikusten zutelarik<sup>56</sup>. Datuak argiak ziren, 1988-1996 bitartean behin-behineko kontratuen tasa 11 puntu igo egin zen eta 1991 geroztik hiru enpleguetatik bi behin-behinekoak ziren<sup>57</sup>.

53 IKEI: *Economía*, 110.or.

54 IKEI: *Economía*, 120.-123.or.

55 Sergio Galvez: *La gran huelga general: el sindicalismo contra la modernización socialista*, Madril, Siglo XXI España, 2017.

56 James Petras: “El informe Petras: Padres-hijos: dos generaciones de trabajadores españoles”, *CGT Biblioteca Online*, 1996, (<https://cgt.org.es/wpcontent/uploads/2007/05/informe-petras.pdf>, 2020ko ekainaren 4a.).

57 Juan Jesus Gonzalez eta Miguel Requena: *Tres décadas de cambio social en España*,

Familia proletarioak egoera zaugarrian aurkitzen ziren eta tentsio sozialak nabarmen egin zuen gora. Langileriaren bizi-baldintzen pobretzea gertatzen ari zen, hau da, langile batek eduki zitzakeen bizibaliabideen murrizketa. Langileria eta bereziki gazteria, kontsumo-ondasunak areagotzen ari ziren garai batean haueetatik geroz eta urrutiago aurkitzen ziren<sup>58</sup>. Orduan, Gobernuak gazteriarentzat plan berri bat diseinatzeko hasi zen. Hainbat gazte ziren enplegu bat lortzeko edozein baldintza onartzeko prest zeudenak. Horregatik, gazteria erreserba-egertzito aproposa zen lan-indarraren debaluaziorako. Desindustrializazio esparruetan, gazteriaren egoera bereziki latza zen, esparru horiek ghetto izaera hartu eta isolamendu sozialez bete ziren ongizate estatuaren aterkitik kanpo. Horren ondorioz, baita beste zenbait kausek baldintzatuta, heroina hedatu zen, suizidioek gora egin zuten, familia egituren desegituraketa gauzatu zen eta delinkuentzia zein bortizkeria forma ezberdinak areagotu ziren<sup>59</sup>.

Tentsio klima horretan plan berria aurkeztu zen: Gazteen Enplegurako Plana (GEP). 16 eta 25 urte bitartekoei lanpostu baten truke lan-baldintza eskasak zein soldata minimoak eskaini zitzaizkien. Gainera, enpresek planaren bidez gazteak kontratatuz gero diru-laguntzak jasoko zituzten. GEPa PSOEek aurrera eramandako lan-merkatuaren malgutasun prozesuaren baitan kokatzen zen. Baina, kasu honetan, sindikatuen aurkakotasuna nabarmena zen. Gobernuaren kolaboratzaileak ziren sindikatuek planaren aurrean plando egin zuten haien ustetan lan-baldintzak eskasegiak zirelako. Horrek guztiak eztanda egin zuen bi sindikatu nagusiek, CCOOek eta UGTek, 1988ko abenduaren 14rako GEParen zein PSOEren politika modernizatzaileen kontrako greba deitu zutenean. Iskanbila handia sortu zen. PSOEek grebarekiko izandako jarrera erasokorra greba deslegitimatuz ordez, hura indartu zuen. Abenduaren 14ko grebak kaleetan eta iritzi publikoan babes handia eduki zuen eta Gonzalezek grebaren ostean plana atzera bota behar izan zuen<sup>60</sup>.

Hala ere, nahiz eta Gobernuak greba testuingurutik nahiko ahul atera, 1989ko hauteskundeetan, hirugarren aldiz jarraian, PSOEek gehiengo absolutua eskuratu zuen. 1988ko grebak panorama politikoa ireki eta Gobernuaren izaera zentralizatzailea bukatuko zenaren esperantza piztu zuen, baina hauteskundeek PSOEn nagusitasun absolutua eman, eta berriz ere, honen borondatean aurkitzen zen negoziaketarako aukera. Desenkantua berragertu zen.

---

Madrid, Alianza Editorial, 2006.

58 James Petras: "El informe", 15.-17.or.

59 Justo Arriola: *A los pies del caballo: narcotráfico, heroína y contrainsurgencia en Euskal Herria*, Tafalla, Txalaparta, 2016; Huan Porrah: *Negación punk en Euskal Herria*, Tafalla, Txalaparta, 2006.

60 Sergio Galvez: *La gran huelga*, 219.-269.or.

#### 4. LAUDIOKO GATAZKA

Langileriak industria-birmoldaketari aurre egiteko asmoz, 1980ko hamarkadan gune-industrial nagusienetan gatazkak eragin zituen: Sagunton, Euskaldunan, Vigon, Ferrolen, Cadizen, Cartagenan edo Reinosan.

Bitartean, 1983an altzairu berezien sektorean *Acenor* taldea sortu zen *Aceriales* osatzen zuten enpresen artean. 1984an *Forjas Alavesas* batu zitzaien eta 1985ean *Olarra*. 1990ean aldiz, Acenorrek eta Forjas y Aceros de Reinosak *Sidenor* holdinga osatu zuten<sup>61</sup>. Jose Ignacio Alvaradok, “Aceroseko” enpresa komiteko Lehendakariak, 1986-1987rarte Laudioko fabrikaren itxiera espero ez zela adierazi zuen. Baina haren ustez, 1987ko Reinosako La Navaleko gertakariak Laudioko etorkizuna baldintzatu zuten. Reinosako gatazketan guardia zibilaren ke-poteen ondorioz langile bat hil zen. Horren ostean, Laudioko fabrikari aurkitzen zen altzairutegi osoa, beste tresna batzuekin batera, piezaz pieza desmuntatu eta Reinosara eramane zen<sup>62</sup>.

“Acerosen” gain-ekoizpenaren arazoa argudio nagusi modura erabili zen bideragarritasuna zalantzan jartzeko. Antonio Aizek (EAJ), 1991tik aurrera Laudioko alkate zenak, beste herrialdeek altzairua ekoizteko zuten lehiakortasunerako gaitasuna, zein altzairuaren gain-ekoizpenak bideragarritasun eza agerian uzten zutela defendatu zuen. Salazarrek, bestalde, lehiakortasun zein gaitasun teknologikoen falta eta plantilla soberakina kausa nagusi modura aipatu zituen<sup>63</sup>. Langileek ordea, ezin zuten ulertu nola baldintza egokietan aurkitzen zen enpresa bat, berriki teknologikoki hobetutakoa, husten zen eta Reinosara bideratzen zen:

El empresariado y los políticos se quitaron la careta en los años 90-92. Ahí vino ya la deslocalización. Si un obrero estaba cobrando 160.000 pesetas en Llodio, en Reinos iba a cobrar 80.000 o 100.000 ¿Cuánto nos vamos a ahorrar? Ahí vino el declive. (...) Cogieron la maquinaria de aquí, que hacía 4 días que habían traído de Suiza a Llodio. Te estoy hablando de 3 años, 1989. Entonces qué, no funcionaban ¿verdad? [makinak]. Ah... Aceros tenía sobre industrialización, ¿y Reinos no?, ¿aquí sí y allí no? No, es que se cierra Aceros y todas esas máquinas se quedan obsoletas, porque no valían para nada... No, no me has demostrado. Me estás mintiendo<sup>64</sup>.

Madrilera begiratu zen Reinosaren babesaren arduradun gisa. “Aceros” Gobernuaren birmoldaketarako elkartearen parte zen heinean Laudioko langileriak ez zuen oso begiko PSOE. UGTko afiliatuek adibidez, PSOEren politika modernizatzaileari kritika egiteko

61 Maria Concepcion Torres Enjuto: “Diez”, 170.or.

62 Aiaraldea Gaur: *Aceros*, minutua: 42.00.

63 Aiaraldea Gaur: *Aceros*, minutua: 15.00; Juan Jose Salazar: *Recuperación*, 317.-318.or.

64 Iñaki Barandiarani elkarrizketa.

enpresaren atean sindikatuko karnetak apurtzen zituzten<sup>65</sup>. Era berean, Iñaki Barandiaranek Gobernu negargarri modura gogoratzen du:

La gente pensó, “bueno, estos se supone que son obreros, Partido Socialista Obrero Español”. Se supone. Se generó una falsa expectativa, y terminó siendo una catástrofe (...). Creo que ha sido el partido más nefasto que ha habido en este país. Eran una serie de mediocres. Porque lo primero, para dirigir un país, hay que tener cabeza y también sentimientos. Si tú no quieres a tu país... Y la forma de quererlo es demostrándolo<sup>66</sup>.

Itxiera hurbildu ahala, herriko kaleak manifestariz bete ziren. Enpresak presioa egiteko, ez zien langileei ordaintzen; orduan, langileek salgaien garraioa oztopatzen zuten. Errepideak moztu edota poliziarekin istiluak sortzen ziren. Gainera, Laudioko kokapen geografikoak garrantzi berezia zuen. Laudio Bilbo eta Gasteizen artean kokatzen da, eta beraz, Bilbo eta Madril artean. Istiluak gertatu zirenean Laudioko ingurubidea ez zegoen sortuta, eta komunikabide bakarra “Aceros” ondoko errepidea zen. Hura blokeatuz gero, merkantzien garraioa erabat oztopatzen zen.

Lan handia burutzen zen herria mobilizatzeko eta komunikabideek lan hura kriminalizatu zuten. “Agitadores de la protesta” ezizena erabiltzen zen, bereziki gazteen aurka<sup>67</sup>. Iñakik herri mailan lanketa politikoa nola burutzen zen azaltzen du:

Trabajamos a nivel general, y con los comercios. “Oye, que esto es serio, no es ninguna broma, la repercusión va a ser para todos”. (...) Tal día huelga general y se iban cerrando bares. Y si alguno estaba abierto “oye, os hemos avisado con propaganda y tal, que es para todos. Daros cuenta que esto es muy serio, que sí esta empresa sigue en la zona es economía que se reparte entre todos”. De hecho, a algunas empresas hubo que ir a pararle los pies, porque pretendían abrir. Siempre te estabas jugando el tipo<sup>68</sup>.

1990tik aurrera etor zitekeenaren berri ezberdinak heldu ziren. 1991ko martxoan Laudioko eta Hernaniko faktoretako 3.000 langileei eragingo zien aldi-baterako erregulazio espedientea aurkeztu zen<sup>69</sup>. Urrian, aldiz, *Acenorreko* zuzendaritzak Plan Estrategikoa aurkeztu zuen: 1.690 langileko-soberakina eta Laudioko zein Hernaniko faktorien itxieraren beharra. Laudioko 564 langileak kanporatuak izango ziren<sup>70</sup>. Egoera zaildu ahala, sindikatuen arteko banaketak hasi ziren itxieraren aurka borrokatzetik prestazio sozialak negoziatzera igarotzerakoan. Sindikatu

65 Aiaraldea Gaur: *Aceros*, minutua: 20.00.

66 Iñaki Barandiarani elkarrizketa.

67 Aiaraldea Gaur: *Aceros*, minutua: 35.00.

68 Iñaki Barandiarani elkarrizketa.

69 Laudioko Udal Artxiboa (LUA), Udal aktak, 1991eko martxoaren 25a. Zenbakirik gabe.

70 LUA. Udal Aktak, 1991eko urriaren 11a, 1.-4.or.



batzuek aurretiko-erretiroak negoziatu zituzten eta horrek borrokaren giltzarri zen langileen arteko batasuna apurtu zuen. Gertaera hauek langileen eta enpresa-komitearen esperantza-eza handitu zuten, baita gatazka bera lausotu ere<sup>71</sup>.

Industria-birmoldaketak udaletxean ere eztabaidak sortu zituen, bereziki 1991tik aurrera. Urte hartan Aizek alkatetza lortu zuen. Enpresa-komiteek mozioen bitartez, udal-plenoetan industria-birmoldaketa eztabaida gai bihurtu zen. “Aceros”, Lipmesako eta BLGetako enpresa-komiteak udaletxera zuzendu ziren, BLGen kasuan langileen herri guztietara zuzendu ziren. Plenoetan, Eusko Alderdi Jeltzalearen eta Herri Batasunaren arteko gatazkak sortu ziren. EAJk mozioak babestu eta kezka Eusko Jaurlaritzara bideratzeko prestutasuna erakusten zuen bitartean; HBk EAJren hitzezko konpromezua eta protestak kriminalizatzeko joera salatzen zuen<sup>72</sup>. Dena den, udaletxearen partetik erabaki politiko gutxi eta arazo larriaren trataera eskasa nabarmendu daiteke.

Horrela, ba, 1992ko urrian, “Acerosek”, atek itxi zituen. Itxiera unean, kaleratzerik ez zen izan. Hasiera batean, 200 langile inguruk aurretiko-erretiroa hartu zuten, beste batzuk aldiz beranduago. Gainontzeko langileak enpresaren beste faktoretan kokatu zituzten:

Debido al cierre de “Aceros” y demás, los jóvenes que venían, tenían que andar buscando trabajo en otros sitios, algunos en Gasteiz, tenían que desplazarse en coche con el peligro que tenía; otros a Amurrio; otros a Basauri a Sidenor. Buscar en la periferia en lo que habría y saldría<sup>73</sup>.

Itxierak kezka handia sortu zuen. Kolpea komertzioetan, industria-txikian eta enpresa zein tailer laguntzaileetan nabaritu zen. Gainera, ez zen kolpe bakarra izan. *Arlasak* ere 1990eko hamarkadan itxi zuen, baita *Vinícola Industrialek* ere; *Lipmesak* aurrera egiteko zailtasun handiak eduki zituen<sup>74</sup>; *Tubacex* ixteko zorian egon zen; eta *Talleres Gometegui* hainbat ez-ordaintze egon ziren:

Claro no hemos dicho que cuando se cerró “Aceros” Tubacex estuvo a punto de cerrarse. (...) Nos pilló a nosotros de acreedores. 3 meses sin cobrar. Al final Tubacex decidió hacer los convertidores del inoxidable en Gometegui y entonces, empezó a pagar la deuda. A los tres meses. Yo he tenido tres paros de cobro en Gometegui. En el 81 dos meses sin cobrar, en el 87-88 otros 2 meses, y la última cuando cierra “Aceros” y el posible

71 Aiaraldea Gaur: *Aceros*, minutua: 45.00.

72 LUA. Udal Aktak, 1992ko otsailaren 2a, 70.-72.or.

73 Javier Luengori elkarrizketa, 2020ko uztailaren 20a, Audio.

74 “A los trabajadores del Valle de Ayala y del Alto Nervión”, Euskal Memoria Digitala – Sancho el Sabio Fundazioa, 1982 (<https://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/47956>, 2020ko ekainaren 9a).

cierre de Tubacex. Tres meses sin cobrar en el 92. Sabíamos lo que nos estábamos jugando en esta comarca, a nivel general, de comercio, social... Fue para este pueblo una derrota social<sup>75</sup>.

Prozesu mingarria izan zen oso, “Acerosekin” Laudioko langileriaren orainaldiak eta etorkizunak ihes egin zuen. Bertan hazi eta hezitako langileak testuinguru berri batera moldatu behar ziren:

Para mí el cierre de Aceros de Llodio, como para otras personas, fue muy duro. Porque al entrar con 14 años (...). La juventud y muchísimas personas nos habíamos criado ahí. Fue un golpe muy fuerte en todos los sentidos, en lo económico, repercusión para el pueblo... Quieras o no quieras, aun habiendo evolución tecnológica, habría 700-800 personas trabajando<sup>76</sup>.

Boterera heldu zenetik PSOEk modernizazioa izan zuen helburu. Hartarako, oinarri estrategikoak lan-malgutasuna eta kultura-politiko autoritarioa izan ziren. Lan-malgutasunak, Gobernuaren lan-politika definitu zuen, baita behin-behineko enpleguek, “ezkutuko ekonomiak” eta soldata minimoaren edo horren azpiko lan-kontratuek. Gazteria izan zen neurri hauek pairatzen lehena, baina neurriak gazteriar mugatu ordeztu, langileria osoari aplikatuko zitzaizkion<sup>77</sup>. Kultura-politiko autoritarioa aldiz, Petrasek definitu zuen politika-eredua zen, inizatiba lokalari zein edozein alternatibari autonomia kendu eta botere-politiko oro Gobernuan zentralizatzea helburu zuena<sup>78</sup>.

Trantsizioko desenkantua beraz, demokrazian jarraipena eduki zuen, gazteria izanik bereziki sentsazio hori pairatu zuena. Desenkantua forma ezberdinak hartu zituen: alde batetik, instituzio politikoezko distantzia, gazteriaren iritzia erabakiguneetatik kanpo kokatzean; bestetik, izaera auto-suntsitzailea, milaka gazteengan itxaropen eza nagusituz eta drogak zein biolentzia-forma ezberdinak areagotuz<sup>79</sup>. Gazteriaren bizi-baldintzen pobretzeak sorrarazitako biolentzia-forma orok gazteriaren kriminalizazioan sakondu zuen eta arazoaren erro komuna aztertu ordeztu, segurtasun ezari begiratu zitzaion. Baina

## 5. MODERNIZAZIOAREN AURPEGI EZEZAGUNA

<sup>75</sup> Iñaki Barandiarani elkarrizketa.

<sup>76</sup> Javier Luengori elkarrizketa.

<sup>77</sup> Marco Revelli: “La fábrica posfordista se transforma en una institución total”, *Resiste*, 24, 1998, 40.-44.or.

<sup>78</sup> James Petras: “El informe”, 49.-51.or.

<sup>79</sup> Rafael Ruzafa: “Caras tristes de un proceso histórico. La desindustrialización de la ría de Bilbao en el último cuarto del siglo XX”, *Historia, Trabajo y Sociedad*, 8, 2017, 11.-33.or.; James Petras: “Informe”, 31.-35.or.

desenkantuak ez zuen gazteria gelditu. Kalera atera zen gurasoen lanpostuak eta bere etorkizuna defendatzera, baita gizarte posfordista borrokatzera. Gazteriak mugimendu sozio-politikoa eta kulturala indartu zituen. 80ko hamarkadan esperientzia autonomoak garatu ziren, besteak beste irrati libreak, gaztetxeak edo fanzineak. Bestalde, Euskal Rock Erradikalak euskal gazteen eta ez hain gazteen errealitatea modu erraz zein gordinean kontatu zuen eta horren aurrean mobilizatzeko beharra adierazi ere<sup>80</sup>.

1990eko hamarkadan ekoizpen-eredu fordistak sorrarazitako aukera politikoak oso urrun aurkitzen ziren jada. Eredu posfordista berria ez zen lan-gatazketarako aproposa. Fabrika instituzio konplexu bihurtu zen eta ez zituen klase antagonismoak onartzen. Gainera, sindikatuak eta alderdiak ekoizpen-eredu fordistaren eraistearen subjektu negoziatzaile bihurtu ziren<sup>81</sup>. Lan-gatazkei bidea moztu zitzaizen eta langileen arteko konpetentzia basatia nagusitu zen. Politika instituzionalak parte-hartze politikoa mugatu zuen eta langileria, subjektu politiko gisa, eztabaida politikotik kanpo geratu zen. Horrela, ba, 80ko hamarkada porrotaren eta langileriaren desagertzearen sentsazioak markatu zituen<sup>82</sup>.

Laudio ez zen salbuespen bat izan. Industriaren eraispenak ondorio ezberdinak eragin zituen. Datu esanguratsu batzuei erreparatu gero, Laudiok 1986an 21.183 biztanle zituen eta 2001ean, aldiz 18.931. Horrekin batera, biztanleriaren zahartze progresiboa gertatu zen. 1981-2005 bitartean joera aldatu eta 2005ean 65 urte baino gehiagoko kopuruak 0-19 urte bitartekoena gainditu zuen. Joera kezkarri honek jarraipena eduki zuen XXI. mendeko lehen bi hamarkadetan: 2017an Laudio EAEko udalerrien artean jaiotze-tasa baxuena zuen udalerria zen, 1.000 biztanleko 5,8ko jaiotze-tasa baitzuen. Laurogeiko hamarkadatik aurrera Laudiok pairatutako biztanleriaren galerak eta zahartzeak, zailtasun ekonomikoekin batera, jaiotze-tasa mantentzeko zailtasuna ekarri zuten<sup>83</sup>.

80 Jakue Pascual: *Movimiento de resistencia. Años ochenta en Euskal Herria: contexto, crisis y punk*, Tafalla, Txalaparta, 2015; David Mota: *Los 40 Radikales. La música contestataria vasca y otras escenas musicales: origen, estabilización y dificultades (1980-2015)*, Bilbao, Ediciones Beta, 2017; Josetxo Esteban: *Tropicales y radicales. Experiencias, alternativas y luchas autonomas en Euskal Herriak (1985-1990)*, Bilbo, Likiano Elkarte, 2005.

81 Marco Revelli: "La fábrica", 43.or.

82 David Beorlegui: "La fábrica como espacio de lucha y de memoria, el caso de Bilbao y la margen izquierda (1975-1995)", *Historia Contemporánea*, 2018, 58, 815.-847.or.

83 Gerardo Fernandez Llana (Zuz.): *Menos, es más*, Bilbo, Eitb, 2017ko uztailaren 17a, (<https://www.eitb.eus/es/television/programas/menos-es-mas/videos/detalle/4972754/video-laudiollodio-araba-tiene-tasa-natalidad-baja-euskadi/>, 2020ko ekainaren 14a).

**2. Taula:** Laudioko langabezia-tasa, 1986-2016 bitartean.

	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Gizonak	19,1	16,2	17,3	9,1	4,9	13,9	13,8
Emakumeak	42,4	35,7	44,7	22,7	9,2	17,2	19
Guztira	25,1	22,1	27,2	14,3	6,7	15,4	16,2

Iturria: Eustat.

Bestalde, bigarren taulan ikus daitekeen modura, 1996rarte Laudioko langabeziaren datuak kezagarriak ziren. 2001etik aurrera langabezia orekatzea lortu zen, 2008ko krisia agertu arte. 2011n adibidez, gizonezkoen langabezia-tasa %14an kokatu zen eta emakumezkoena %17an. Bestetik, 1986-1996 bitartean, Laudion, profesional eta teknikarien kopurua bikoiztu zen eta administrazio-langileak areagotu ziren. Merkataritzaren eta ostalaritzako langileak ere areagotu ziren. Industrian, aldiz, 790 lanpostu suntsitu ziren. Horretaz gain, 1986-2001 bitartean, Laudioko biztanleria landunaren kopurua 1.268 kideetan handitu zen. Bereziki igoera hau emakumearen lan-merkaturatzeari esker gauzatu zen. Gazteen kasuan, lan-munduan murgiltzeko aukerak zituzten. Hala ere, industria-birmoldaketa geroztik, aurretik lan egin zuten baina langabezian aurkitzen ziren langileen kopuruak gora egin zuen, bereziki 1996an. Gorakada hori gainera, emakumeen artean nabarmenagoa zen gizonezkoetan baino<sup>84</sup>.

Datuak eskutan, Laudion industria-birmoldaketarik ez zela egon adierazi daiteke; industria-birmoldaketaren izenean lanpostuen galera progresiboa gertatu zen, baita langileen bizi-baldintzen uzurtzea. Altzairu bereziaren sektorearen egoera okerra ikusita langileei “Aceros” itxi eta errautsetatik berpizteko beharra adierazi zitzairen. “Aceroseko” esparruan zoru-industrial berri bat sortzea zen asmoa. Baina hori ez zen gauzatu:

Sí, vamos a generar una nueva “Industrialdea” en la zona. ¿A qué sueldos, a qué niveles y con qué contrataciones? 4 empresas que no tienen ningún significado, ni potencial económico. Un taller de 6 obreros, otro de 7, otro de 5... Me gustaría ver sus contratos. Eso fue una ruina, fue el querer y no poder (...). Esa es la disculpa que puso la dirección y el Gobierno Vasco. Se cierra porque tenemos “sobre-explotación”, hacemos más de lo que podemos vender. ¡Pues busca mercados! ¿Pero lo que haces es válido? Sí. Pues muy sencillo, busca mercados<sup>85</sup>.

84 Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak.


85 Iñaki Barandiaran elkarriketa.

**3. Taula:** Bataz besteko soldatak industrian eta zerbitzuetan, 1980-2000 bosturtekoak. Lan egindako ordu bakoitzeko bataz besteko ordain-saria pezeta eta eurotan.

Urteak	Metalen ekoizpena eta lehen transformazioa	Merkataritza	Jatetxeak, kafetegiak eta ostalaritza
1980-1984	582,4pts/3,5€	407,72pts/2,4€	318,36pts/1,9€
1985-1989	874,4pts/5,3€	634,4pts/3,8€	531,4pts/3,2€
1990-1994	1.082,2pts/6,5€	935,8pts/5,6€	834pts/5€
1995-2000	1.422,33pts/8,5€	1.120,33pts/6,7€	1.081,5pts/6,5€

Iturria: Nik neuk egina. Datuak: Maluquer de Motes eta Llonch, 2005: 1225-1226-1227.

**1. Grafikoa:** Kontsumoko Prezioen Indizea. Oinarria 1992. Urteko bataz bestekoa. Seriea 1961eko urtarrietik:



Iturria: INE.

KPIak goranzko joera adierazgarria adierazten zuen garaian, industriako lan-postu ugari, baita lan-baldintzak galdu ziren eta hauek hirugarren sektoreko enpleguek ordezkatu zituzten. Lan-malgutasunak, bizi-eredu egonkor bat atzean utzi eta ezegonkortasuna eta segurtasun-gabezia ekarri zien familiei. “Aceros” eta antzeko enpresak benetako ikur sozialak ziren, horietatik abiatuta sortu eta bateratu baitziren eskualdeak. Horiek erasotuz gero, familien bizitza sozio-ekonomikoa erasotzen zen<sup>86</sup>.

Gazteen kasuan, ikasketak bukatu eta bizi osorako lanpostua desagertzen zen eta horrek berarekin politika formalarekiko urruntzea

<sup>86</sup> Rafael Ruzafa: “Caras”, 15.or.

zekarren. Adibidez, Eusko Alkartasunak Laudioko udaletxean mozio bat aurkeztu zuen gazteak instituzioetara hurbiltzeko plan berri batekin<sup>87</sup>. Baina gazteak presente zeuden lan-gatazketan, irrati-libreetan, gaztetxean zein kultur-espresio ezberdinetan. Helduenen kasuan aldiz, uste baino lehenenago heltzen zen erretiroa. Derrigortutako aurre-erretiratuaren figura sortu zen, 50 urterekin eta diru-sarrerak bermatuak zituen pentsoien erregimen orokorrean sartzeko adinera iritsi arte. Horrek ordea, arazoak sortzen zituen gizon askorentzat, haien lana beraien duintasuna zelako, beraien papera munduan. Are gehiago jarrera matxistak hedatuak zituen gizarte batean, non gizonaren rola hori zen. Horrek gizonen artean frustrazio eta depresio handiak sortu zituen<sup>88</sup>.

Hortaz gain, aurreko hamarkadak ezaugarritu zituen borroka desagertu zen:

A partir del cierre de “Aceros” se disolvió todo. (...) Sí que podías hablar y estirarte un poquitín, pero luego, te ponían cruces, y a mí me las pusieron. Cuando se luchó, se luchó fuerte por ello, eran nuestros derechos. Pero después, eso se ha perdido. Ya no se lucha, ni se pelea y se defienden los derechos como antes. Bajo mi punto de vista, está bastante controlado por algunos sindicatos. (...) Entonces claro si es una persona que está manifestándose en el pueblo y que está reivindicando cosas laborales... pues ese no entra, porque no les gusta. Donde estaba yo en Basauri [Sidenor Enpresan], todos los años, cuando han firmado el convenio, no ha habido asambleas y no han contado con la votación de los trabajadores<sup>89</sup>.

Iñakik langileria aztertu zigun bere orokortasunean, baita honek denbora-tarte honetan bizitako eraldaketa politiko eta soziala ere:

El obrero ha tenido una des-concienciación de que tú tienes que participar en una empresa. Tú tienes que ser parte de la empresa. Cualquier cosa que le pasa a esa empresa a ti te afecta. Y cuando veas a una empresa fracasar, hazte a la idea de que el siguiente puedes ser tú. (...) He dicho alguna vez que sigue habiendo obreros igual que hace 100 años. Lo que ya no tenemos es clase obrera. Eso es que el obrero ha perdido conciencia de quien es. Se ha creado un individualismo y nos ha llevado a un derrotismo. De eso siempre ha ganado el empresario. Porque el obrero de alguna de las formas ya está destruido socialmente. No está unido, no participa de las cosas conjuntamente<sup>90</sup>.

Balorazio ezkorra bezain sakona Iñakik egiten duena. Bere iritziz, langileen arteko batasuna desegin da, jada borroka ez da modu

87 LUA. Udal Aktak, 1992ko maiatzaren 4a, 4-6 or.

88 Rafael Ruzafa: “Caras”, 29.-33.or. ; Aiaraldea Gaur: *Aceros*, minutua: 51:00.

89 Javier Luengori elkarrizketa.

90 Iñaki Barandiaran elkarrizketa.

kolektiboan gauzatzen. Gainera, langileek enpresako parte-hartzean eduki duten beherakada nabarmentzen du. Hor aurkitzen ditu garaien arteko ezberdintasun nagusienak. Horretaz gain, objektuaren eta subjektuaren arteko bereizketa gauzatzen du. Inakirentzat langileria subjektu politiko izateari utzi dio; bere klase kontzientzia galdu du. Horrek berekin dakar, beraz, langileriaren egunerokotasunean historikotzat jotzen ziren helburu batzuk ahaztea.

## 6. ONDORIOAK

Langile mugimendua trantsizioan indartsu aurkitzen bazen ere, barne eta kanpo arazoien ondorioz, metatutako gaitasunak galdu zituen. Alde batetik, proiektu politiko bat gauzatzeko gai ez zen izan eta beraz, gaitasun horiek fabrikako esparruan abantailak lortzera mugatu ziren, bereziki soldataren arloan. Bestetik, krisi ekonomikoak gogor kolpatu zuen langileria, doikuntza eta malgutze politikak aplikatu zitzaizkiolako. Bizi-baldintzen pobretzeak langile mugimenduaren beherakadarekin egin zuen bat eta fabrika zein industria ez ziren jada langileriarentzat aukera erraza. Proletariotzaren erreprodukzioa eta biziraupena zaildu egin ziren. Gainera, politika nagusitik kanpo geratu zen.

Laudiok garai hartan prozesu bera bizi izan zuen eta hau testuinguru orokorarekin harremantzen saiatu gara. Industria-birmoldaketak eskualdeko enpresa nagusiena, “Aceros” itxi zuen, baita beste enpresa batzuk ere. Bizi-eredu bat desegin zen, hots, ikasketak gauzatu eta eskualdeko industrian bizi osorako lanpostu bat edukitzea, soldata eta lan-baldintza egokiekin. Gazteei eta ez hain gazteei herriko lan-aukera aldendu zitzairen, eta ondorioz, askok bertatik alde egin zuten.

Industria hain garrantzitsua zen herri batetik, hirugarren sektorea nagusituko zen herri baterako trantsizioa ez zen erraza izan. Laudio biztanleria beherakada nabarmena eduki zuen, jendeak alde egin zuelako, jende berriarentzat Laudio ez zelako erakargarri edo 90eko hamarkadatik aurrera Laudio jaiotze-tasa oso baxua izan duelako. Bizitza-soziala eta komunitatea ere hausten hasi ziren, sakabanaketa handia izan baitzen. Enpresa handiak bizitza-soziala antolatzeke baita herria bateratzeko gai ziren heinean, hauek ixtean lotura horiek guztiak desagertzen ziren. Horregatik, herri osoa mobilizatu zen industria-birmoldaketak sortuko zituen arazoak jakitun eta Laudioko langile mugimenduko borroka ziklo nagusiena piztu zen. Baina porrotaren tamaina adierazgarria izan zen.

Garaiko bi protagonistaren eskutik prozesura hurbiltzeko aukera izan dugu eta haien analisi eta balorazioez gain, sentipen eta emozioak jaso ditugu: tristura, amorrua, kezka eta haserre. Baita etsipena eta nostalgia ere, izan zirengatik, baina galdu eta itzuli ezin den horregatik ere. Mesfidantzaz begiratzen diote orainaldiari. Ezin izan zutelako ondare bat utzi: belaunaldi berrientzako “Aceros”. Ezta langile mugimendu indartsu bat.

Baina beste ondare bat utzi zuten, fabrika ez dena. Ondarea haien borroka grina da. Horregatik garrantzitsua da langileei ahotsa ematen jarraitzea. Ezin direlako memoria hauek galdu dagokien trataera eskaini gabe. Trataera ordea, ez du esan nahi transmisioa etetea eta gaur eguneko errealitateak isolatzea. Aitzitik, azterketak gaur egungo errealitatearen aurrean jarrera kritiko bat garatzea dakar. Krisia, langabezia, malgutasuna eta eraispen-industrialak ez dira iraganeko fenomenoak; gaur egungo errealitatea baldintzatzen duten auziak baizik. Beraz, garai bateko langileen ondarea errespetatzea dagokigu, trataera kritikoa gauzatzea, baita iragan garaietan zabaldu ziren aukerak argitzea ere. Beti ere, sortu ziren testuinguru sozio-historikoan ulertuta. Hau gutzia egin ezean, berriz ere porrotaren ondorioak jasateko aukera dago.

### Bibliografia:

Aiaraldea Gaur: *Aceros 25 urte: Aiaraldeko klase borrokaren adibide bat (dokumentala)*. Online bideo fitxategia (<https://www.youtube.com/watch?v=cdVVjfQY448>, 2020ko ekainaren 8a).

Albarracín, Jesús: “La extracción del excedente y el proceso de acumulación”, in Miren Etxezarreta: *La reestructuración*. Bartzelona, Icaria, 1991: 325.-336.or.

Alcaide Inchausti, Julio: *Evolución económica de las regiones y provincias españolas en el siglo XX*, Bilbo, Fundación BBVA, 2003.

Andrade, Juan: *El PCE y el PSOE en (la) transición: la evolución de la izquierda durante el proceso de cambio político*, Madril, Siglo XXI España. 2014.

Arriola, Justo: *A los pies del caballo: narcotráfico, heroína y contrainsurgencia en Euskal Herria*, Tafalla, Txalaparta, 2016.

Beorlegui, David: “La fábrica como espacio de lucha y de memoria, el caso de Bilbao y la margen izquierda (1975-1995)”, *Historia Contemporánea*, 2018, 58, 815.-847.or.

Beorlegui, David: *Transición y melancolía. La experiencia del desencanto en el País Vasco (1976-86)*, Madril, Postmetropolis Editorial, 2017.

Bertaux, Daniel: “Los relatos de vida en el análisis social”, *Historia y Fuente Oral*, 1, 1989, 87.-96.or.

Brendel, Cajo eta Simon, Henri: *Ilusiones políticas y lucha de clases: del antifranquismo al postfranquismo*, Bartzelona, Virus, 2004.

Carmona, Pablo Cesar: “Autonomía y contracultura. Trabajo, revuelta

### BIBLIOGRAFIA ETA BESTE ITURRIAK



y vida cotidiana en la transición”, in Espai en Blanc (coord.): *Luchas autónomas en los setenta*, Madril, Traficantes, 2008, 203.-230.or.

Carnicero, Carlos: *La ciudad donde nunca pasa nada: Vitoria, 3 de marzo de 1976*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2007.

Carreras, Albert: “Industria”, in Albert Carreras eta Xavier Tafunell (Coord.): *Estadísticas históricas de España: siglos XIX-XX*. Bilbo, BBVA Fundazioa, 2005, 357-454.

Casado, Reyes; *La transición en rojo y negro, CNT (1973-1980)*, Madril, Fundación Salvador Seguí. 2018.

Dolidier, Arnaud: “Las movilizaciones obreras durante la transición democrática española: discursos y representaciones acerca del asambleísmo (1976-1978)”, *Debats. Revista de cultura, poder y sociedad*, 132(1), 2015, 85.-102.or.

Estebaranz, Josetxo: *Tropicales y radicales. Experiencias, alternativas y luchas autónomas en Euskal Herriak (1985-1990)*, Bilbo, Likiano Elkartea, 2005.

Etxezarreta, Miren: *La reestructuración del capitalismo en España: 1970-1990*, Bartzelona, Icaria, 1991.

Fernández Barbadillo, Pedro: “El concierto económico vasco, ¿Pacto entre iguales o concesión?”, *Revista de Estudios Políticos (Nueva Época)*, 124, 2004, 218,-219.or.

Fernández Llana, Gerardo (Zuz.): *Menos, es más*, Bilbo, EITB, 2017ko uztailaren 17a (<https://www.eitb.eus/es/television/programas/menos-es-mas/videos/detalle/4972754/video-laudiollodio-araba-tiene-tasa-natalidad-baja-euskadi/>, 2020ko ekainaren 14a).

Fontana, Josep: *Por el bien del imperio: una historia del mundo desde 1945*, 3. Edizioa, Bartzelona, Pasado y Presente, 2018.

Gálvez, Sergio: *La gran huelga general: el sindicalismo contra la modernización socialista*, Madril, Siglo XXI España, 2017.

González, Juan Jesús eta Requena, Miguel: *Tres décadas de cambio social en España*, Madril, Alianza Editorial, 2006.

González i Calvet, Josep: “Crisis, transición y estancamiento: la política española, 1973-1982”, in Miren Etxezarreta (Coord.): *La reestructuración*, Bartzelona, Ikaria, 2012, 15.-60.or.

González Portilla, Manuel: “Algunas reflexiones sobre la crisis del País Vasco del último cuarto del siglo XX”, *Studia Historica, Historia Contemporánea*, 13-14, 1995-1996, 105.-118.or.

Halbwachs, Maurice: *La memoria colectiva*, Zaragoza, Prensas Universitarias de Zaragoza, 2004.

Herrero, José Luis: “Las relaciones de trabajo”, in Miren Etxezarreta (Coord.): *La reestructuración*, Bartzelona, Icaria, 1991, 371.-398.or.

IKEI: *Economía vasca, evolución sectorial (1976-2001)*, Bilbo, Laboral Kutxa, 2002.

IKEI: *Informe de IKEI: sobre reconversión industrial y estudio sociológico, 1979*, Donostia, 1979. Audioko Udal Artxiboan eskuratua.

Julia, Santos: “Desencanto”, in Santos Julia: *Transición: historia de una política española*, Bartzelona, Galaxia Gutemberg, 2017, 497.-538.or.

Kohler, Holm-Detlev: *El movimiento sindical en España: transición democrática, regionalismo, modernización económica*, Madril, Fundamentos, 2001.

Lasheras, Amparo: *Gasteiz, 3 de marzo. Un recuerdo 25 años después*, Gasteiz, Arabera, 2001.

Llona, Miren (Coord.): *Entreverse. Teoría y metodología de las fuentes orales*, Bilbo, EHU, 2012.

Lorca, José María: “El impacto de la crisis del petróleo de 1973 en el contexto económico español”, *Espacio, tiempo, y forma, Historia Contemporánea*, 27, 2015, 165.-180.or.

Maluquer de Motes, Jordi eta Llonch Montserrat: “Trabajo y relaciones laborales” (Coord.): *Estadísticas históricas de España: siglos XIX-XX*, Bilbo, BBVA Fundazioa, 2005, 1157-1245.

Marín, José María: “La fase dura de la reconversión industrial”, *Historia del Presente*, 8, 2006, 61.-101.or.

Marín, José María: *Los sindicatos y la reconversión industrial durante la transición, 1976-1982*, Madril, Consejo Económico y Social, 1997.

Merino, Aketza: *El alto Nervión en la red de modernizaciones vascas (1860-1975). Claves de un proceso de cambio*, Doktore Tesia, Bilbo, UPV/EHU, 2017.

Moreno Seco, Mónica (ed.): *Manifiestos feministas: antología de textos del movimiento feminista español (1965-1985)*, Alacant, Alacanteko Unibertsitatea, 2005.

Mota, David: *Los 40 Radikales. La música contestataria vasca y otras escenas musicales: origen, estabilización y dificultades (1980-2015)*, Bilbo, Ediciones Beta, 2017.

Nexo Autonomía: “Autonomía obrera y transición democrática: una aproximación crítica”, in Francisco Quintana (Coord.): *Asalto a la fábrica: luchas autónomas y reestructuración capitalista 1960-90*, Bartzelona, Alikornio, 2002, 13.-80.or.

Pascual, Jakue: *Movimiento de resistencia. Años ochenta en Euskal Herria: contexto, crisis y punk*, Tafalla, Txalaparta, 2015.

Pérez, José Antonio: “Este es el tiempo del cambio. España 1982-1996. Una sociedad en transformación”, Carlos Navajas eta Diego Iturriaga (eds.): *España en democracia: actas del IV Congreso de Historia de Nuestro Tiempo*, Logroño, Errioxako Unibertsitatea, 2014, 63.-82.or.

Pérez, José Antonio: “La configuración de nuevos espacios de sociabilidad en el ámbito del *Gran Bilbao* de los años 60.”, *Studia Historica. Historia Contemporánea*, 18, 2000, 117.-147.or.

Petras, James: “El informe Petras: Padres-hijos: dos generaciones de trabajadores españoles”, *CGT Biblioteca Online*, 1996 (<https://cgt.org.es/wpcontent/uploads/2007/05/informe-petras.pdf>, 2020ko ekainaren 4a).

Porrah, Huan: *Negación punk en Euskal Herria*, Tafalla, Txalaparta, 2006.

Revelli Marco: “La fábrica posfordista se transforma en una institución total”, *Resiste*, 24, 1998, 40.-44.or.

Revelli, Marco: *Más allá del siglo XX. La política, las ideologías y las asechanzas del trabajo*, Bartzelona, El Viejo Topo, 2001.

Rodríguez, Emmanuel: *Por qué fracasó la democracia en España. La transición y el régimen del '78*, Madril, Traficantes de Sueños, 2015.

Ruzafa, Rafael: “Caras tristes de un proceso histórico. La desindustrialización de la ría de Bilbao en el último cuarto del siglo XX”, *Historia, Trabajo y Sociedad*, 8, 2017, 11.-33.or.

Sáenz del Castillo, Aritza: “Gasteizko langile mugimendua frankismo garaian. Berrikuspen historiografikoa”, *Sancho el Sabio*, 30, 2009, 189.-217.or.

Salazar, Juan José: *Recuperación de la memoria colectiva, Ludio/Lludio*. Ludio, Amalur Fundazioa, 2005.

Sánchez León, Pablo: “Desclasamiento y desencanto. La representación de las clases medias como eje de una relectura generacional de la transición española, Valentzia, *Kamchatka*, 4, 2014, 63.-99.or.

Serrano, José María: “Crisis económica y transición política”, *Ayer*, Madrid, 15, 1994, 135-164.or.

Torres Enjuto, María Concepción: “Diez años de reconversión industrial en Euskadi”, *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, 13, 1991, 165.-186.or.

Wilhelmi, Gonzalo: *Romper el consenso: la izquierda radical en la transición española (1975-1982)*, Madril, Siglo XXI España, 2016.

**Beste iturriak:**

Euskal Memoria Digitala – Sancho el Sabio Fundazioa (<https://www.euskalmemoriadigitala.eus/>, 2020ko ekainaren 9a).

Eustat – Euskal Estatistika Erakundea (<https://www.eustat.eus/indice.html>, 2020ko ekainaren 26a).

INE – Instituto Nacional de Estadística (<https://www.ine.es>, 2021eko martxoaren 29a).

Laudioko Udal Artxiboa. Laudioko Udal Aktak, 1991ko martxoaren 25etik 1992ko abenduaren 29rarte.

Iñaki Barandiarani egindako elkarrizketa. Audio, 2020ko uztailaren 20a.

Javier Luengori egindako elkarrizketa. Audio, 2020ko uztailaren 20a.